berdinatsuna

landa garapena

| | Zbkia | Bilerarako TITULUA | PROPOSAMENA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| 1 | 13 | LANBIDE HASTAPENEKO IKASLEEN INTEGRAZIO SOZIO-LABORALA BIDERATZEKO PROGRAMA | Komunitatearen aldeko lanak garatzeko praktika eran, Debagoieneko udalerri guztietan programa bat sustatzea: i) Lanbide Hastapeneko ikasleen integrazio sozio-laborala bultzatzeko eta ii) herritarren proposatu eta udalek bideratu eta zehaztutako komunitatearen aldeko lanak burutzea. Publikoak diren ekipamendu eta inguruneetako mantenu-lanak egingo ziren. Lan praktikoak Lanbide Hastapeneko ikasleek egingo dituzte; iturgintza, elektrizitatea, sukaldaritza, informatika eta obra txikien arloetan izango dira. Arlo sozioako lankidetza eremuko lanak ere egingo dituzte gazteek: gutxietsitako taldeak, jubilatuak, etorkinak, elbarrituak,...Horiekin oinarrizko ikastaro trinkoak, sukaldaritzako ikastaroak, laguntza pertsonaleko ekintzak,...Zaintza eta laguntza sozialeko erakundeekin harremanak sendotuko dira lankidetza hitzarmenekin. | 27 |
| 2 | 3 | LEHEN SEKTOREA BIZIBERRITU AGROEKOLOGIA HELBURU IZANIK ETA BERTAKO KONTSUMOA SUSTATUTA ELIKADURA SUBIRAUTZARANT ABIATUZ | Bertako kontsumoa sustatzea. Sentzibilizazio kanpaina abian jarri ekoizleei nahiz kontsumitzailei zuzenduta.<br>Bertako ekoizle txikien produktuak bertako jendearen esku jarri legea hautsi gabe... Hainbeste zigilu eta araudi sahiestu eskualdeko elkartea sortuz. | 12 |
| 3 | 36 | PAREKIDETASUNA BULTZATZEKO PLANA: HEZKIDETZA, BERDINTASUNA, INDARKERI MATXISTA, GIZONEN INPLIKAZIOA | Aukera berdintasun politikak sustatu eta martxan jarri<br>- Hezkidetza programak indartu. Programa jarraia kurrikulumean txertatua. Ikastetxeetan.<br>- Gizonezkoen inplikazioa bilatzeko estrategiak: ikastaroak, kontzientziazioa,...<br>- Indarkeri matxistaren identifikazioa errazten duten ekintzak: kanpainak, tailerrak... | 10 |

berdinatsuna

landa garapena

| | Zbkia | Bilerarako TITULUA | PROPOSAMENA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| 4 | 26 | DEBAGOIENA HERRI HEZITZAILEA | Debagoiena osatzen duten herriak "Herri hezitzaileak" bilakatzeko prozesuan abiatzea. Herriak ikuspegi hezitzaile batetik eraldatzea, herritarrak subjektu hezitzaileak ere izanik. Horretarako, hezkuntza denon egin beharra dela ikusirik agente guztion elkarlana beharrezkoa da.<br>Egitasmoa aurrera eramateko, ezinbestekoa izango da, Administrazioaren, Hezkuntzaren eta Herrigintzako eragileen arteko elkarlana, herritarrekin batera. Kontuan izan behar dugu, herritarrei buruz dihardugunean, herritar orori egiten diogula erreferentzia: haurrak, nerabeak, helduak, etorri berriak, aniztasun funtzionala dutenak, kultura ezberdinetakoak?<br>Guztion parte hartzearen bitartez ikuspegi hezitzailetik herritarren beharrak identifikatu eta hauek aurrera eramateko moduak bilatu behar ditugu, denon artean.<br>Proposamena, Debagoieneko herri bakoitzean egitasmoa aurrera eramatea izango litzateke. Hau da, teoria eta praktika uztartuz, benetako parte hartzea bultzatuz eta balio hezitzaileak hedatzeko helburuarekin hainbat urrats ematea.<br>Ondoren, guztien artean sare bat osatzeko. Honela, herrien arteko harremanak sustatuko lirateke, esperientziak trukatu? eta zergatik ez, eskualde mailako beharrak identifikatu eta asetzeko bideak jorratu. | 8 |

berdinatsuna

landa garapena

| | Zbkia | Bilerarako TITULUA | PROPOSAMENA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| 5 | 7 | NEKAZARITZARAKO ESKUALDE MAILAKO "LUR BANKUA" SORTU | Bitartekari egingo duen erakunde bat: nekazaritzan lan egin nahi duen eta lurra dutenen artean. Horrela, herritarrek aukera izango dute lehen sektoreko jarduerak martxan jartzeko. Nekazaritzan aritu nahi duen jendearentzat oztopo nagusia lurrik ez izatearena da, eskualdea industriak janda dago. Gazteen ekimenak eta independentzia bultzatu. | 7 |
| 6 | 10 | ESKUALDEAN ENERGIA BERRIZTAGARRIEN EZARPENA ERRAZTU BURUJABETZA ENERGETIKORANTZ ABIATUZ | Eskualdean energia berriztagarrien ezarpena ahalbidetu, udalerri bakoitzean egokiena izan daitekeen energía iturria erabiltzeko (biomasa, ur-saltoak, geotermia...). Hasiera batean, energía berriztagarri horiek udal instalazioren batean jar daitezke, herritar guztien onurarako. | 7 |
| 7 | 32 | UTILITATE SOZIALEKO ENPRESAK SORTU LANGABETUEI LANA EMAN ETA GIZARTERATZEA SUSTATZEKO | Zubi-lanak egin langabezian dagoen jendeari lana eskaintzeko utilitate sozialeko jarduerak beteko lituzkeenak. Ingurua garbi eta egoera onean mantzea ekarriko luke eta pertsona horiek zerbait egiten dutenaren "sentsazioa" izango lukete.<br>Egin daitezkeen lanak: lan sozialak, ingurumenekoak, mantenimendu lanak, etab.<br>Ez da zehatz-mehatz lanpostuak sortzea, baina langabetuei (batez ere langabezian epe luzean daudenei) inguruaren alde zerbait egiteko aukera ematen zaie. | 7 |
| 8 | 1 | BASERRITARREN KOOPERATIBA SORTU | Baserritarren kooperatiba sortu, baserri denekin bideragarritasun plana egin eta hutsik daudenak ere martxan jarri: erein, landu eta saldu. Horrekin lotuta, sinergiak sortu, adibidez, Gatzagako gatz eta Ezpeletako piperrakin. | 6 |
| 9 | 8 | DEBAGOIENAKO KULTURA ESKAINTZA BATERATU (COOL TOUR DEBAGOIENA) | Debagoienako kultura eskaintza bateratzea herrien arteko kontraprogramazioak ez sortzeko. Eta, eskualdeko herritarren arteko mugikortasuna bultzatzeko. Horrez gain, ekipamendu guztietan sartzeko bono bat sortu. Adibidez kirol ekipamenduak bezalakoa.<br>Horrez gain, eskualdean antolatzen diren kultur ekintzen berri, informazioa zabaldu euskarri ezberdinak erabiliz (gida bateratu bat, web orria...)<br>Debagoieneko kultur-erakunde, -talde, -mugimendu eta abarrentzako bailara mailako kultur-zirkuitua osatzea, plaza edo gunea emanez. ESKUALDEKO ELKARTE, ERAGILEEN SAREA SORTU SINERGIAK BULTZATUZ ETA BAILARAKO HARREMANAKK INDARTUZ (kultura, gizarte arlokoak...) | 6 |

berdinatsuna

landa garapena

| | Zbkia | Bilerarako TITULUA | PROPOSAMENA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **10** | 17 | DEBAGOIENEKO TURISMO ESKAINTZA INDARTZEKO PROIEKTUA | Hiru zutabe nagusien inguruan hainbat proiektu indartu eta **eskualdeko eskaintza turistiko bateratu bat sortu**:<br>**1. Hiru zutabe hauek indartu: Natura // Historia, artea eta ondarea // Lehena, oraina eta geroa:** Zutabe hoietako bakoitza indartzeko proiektua martxan jarriak daude mankomunitatetik eta udaletatik baina indartze eta bateratze lan bat behar dute<br>a. Geoaizkorri proiektuaren difusio lana eginez: Geoturismoaren bitartez Azpea Minak (Zerain), Arrikurtz Kobak (Oñati) eta Gatz Museoa (Leintz-Gatzaga) elkartzen ditu<br>b. Enekoren ibilibideen proiekturaren difusio lana eginez: Atxorrotxeko gazteluaren bidez Zubiate Labea (Eskoriatza) eta Gatz Museoa (Leintz-Gatzaga) elkartzen ditu<br>c. Bergarako laboratoriumaren indartze lanak eginez: Berrikuntza, zientzia, ondarea eta hezkuntza oinarri hartuta, bergarapena du helburu nagusitzat<br>**2. Eskaintza bateratu bat sortzeko pausuak eman**<br>a. Autokarabana guneak egokitu eta difusio lana egin: Gaur egun Eskoriatza, Bergara, Oñati eta Elgetak autokarabana guneak dituzte. Eskualde osoko guneak bateratu behar dira eta eskualde hau autokaraban erabiltzaileentzat gune egokia dela kanporatu behar da<br>b. Seinalitik indartu: autopistan eta autopistako irteeretan seinalitika egokia behar da, autopistatik pasatze diren bidaiariei gure eskualdera sartzeko interesa sorrarazteko<br>c. Passe bateratu bat sortu: eskaintza bateratu bat sortu (turismo, kultura, kirola, garraio publikoa, hostalaritza,...) eta teknologiaren bidez passe bateratu horrek neurketa eta datuak emateko aukerak landu<br>d. Bertako produktuen hedapena: Eskualdeko museo, turismo bulego, hotel, aterpetxe,.... Guztietan gure eskualdean egiten diren produktuen salmenterako gunetxo bat sortu<br><br>Horiez gain, turismo baliabideak lotuko dituen ibilbideak diseinatu, seinalizatu eta mantendu (oinezko zein bizikletentzat) eta garraio publikoak turismo baliabideak lotzea bermatu (autobus txikiekin, adibidez). | 6 |

berdinatsuna

landa garapena

| | Zbkia | Bilerarako TITULUA | PROPOSAMENA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| 11 | 42 | MENDEKOTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA EGOKIA EMATEKO ESKORIATZAKO EGOITZAREN EGOKITZAPENA (JOSE ARANA EGOITZA) | Egoitza egungo beharretara egokitu | 6 |
| 12 | 61 | DROGOMENPEKOTASUNAREN KONTRAKO PREBENTZIO KANPAINAK MARTXAN JARRI | Badirudi, krisia dela eta drogomenpekotasuna duten persona kopurua hazi egin dela azken urteetan eta, hori dela eta, oso garrantzizkotzat jotzen da kolektibo ezberdinei zuzendutako prebentzio kanpainak abian jartzea. | 6 |
| 13 | 2 | ESKUALDEKO LEHEN SEKTOREA BULTZATZEKO KANPAINAK | Baserritarrekin egon, euren behar eta kezkak jasotzeko. | 5 |
| 14 | 4 | ATERPETXEA BAILARAN | Bergaran, Leintz gatzagan edo aretxabaletako zahar egoitzan. | 5 |
| 15 | 5 | NAGUSI, EZINDU ETA EDONORI ZUZENDUTAKO IBILBIDE OSASUNTSUAK IDENTIFIKATU, SEINALIZATU ETA KANPAINA EGIN (NORDIC WALKING IBILBIDEAK BARNE) | Jadanik sortuta dauden ibilbideen artean, maila desberdinetako ibilbideak aukeratu eta seinaleztatzea , marka eta panelen bidez. Zailtasun desberdinetako ibilbideak; publiko desberdinentzako; adineko pertsonak, kirolariak,… Eta horren inguruko kanpaina egin. | 5 |
| 16 | 44 | ELGETA ETA BERGARA ARTEKO ERREPIDE ALBOAN BAI OINEZKO ZEIN BIZIKLETARIENTZAKO IBILBIDE SEGURU BAT EDUKITZEA | Elgeta eta Bergara arteko errepide alboan bai oinezko zein bizikletarientzako ibilbide seguru bat edukitzea. Elgetan, Bergaran, San Juanen edota Uberan enpresak daude eta bertara oinez zein bizikletaz joateko aukera egon behar da modu seguru baten. Baita herrira erosketak egitera edo ikastetxeetara joateko ere.<br>-Errepideak oinezko bide zaharra "jan" du eta ez da segurua ibiltzeko edota bizikletaz ibiltzeko. | 5 |
| 17 | 6 | FORMAKUNTZA TURISTIKOA | Zerbitzu, ostalaritza-merkataritzak formakuntza bat eduki dezaten bertako produktua sustatzeko. | 4 |

berdinatsuna

landa garapena

| | Zbkia | Bilerarako TITULUA | PROPOSAMENA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| 18 | 9 | GUZTION AISIALDIRAKO ESPAZIOAK NATURAN | Herritik hurbil, baina naturan kokatuta legokeen aisialdirako espazio baten berreskurapena eta espazio hau adin desberdinetako herritarren beharrei erantzuteko egokitzea. Espazioaren egokitzapena herritarren (haur, nerabe, heldu, nagusi) nahien arabera egingo litzateke, azkenean hauek izango baitira espazioa erabiliko dutenak, eta horretarako, parte hartze prozesuak erabiliko dira tresna moduan.<br>Udal desberdinetako arduradunek ere bertan parte hartu beharko lukete beharrezko baliabideak eskainiz.<br>Proposamen hau aurrera eramateko leku egoki bat, Arrasateko Etxezarreta parkea dela uste dugu. Herri desberdinen artean kokatuta dagoelako (eskualdeko erdigunean) eta espazio natural polita delako. Gainera bidegorri zein autobus publikoarekin ongi komunikatutako gune bat da eta bertan haurrak, gazteak zein helduak elkartzea nahi baldin badugu baldintza garrantzitsua da guztiontzat eskuragarri egotea. | 4 |

berdinatsuna

landa garapena

| | Zbkia | Bilerarako TITULUA | PROPOSAMENA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| 19 | 11 | TRESNA ELEKTRIKO EDO ELEKTRONIKO, ALTZAIRUAK...BERRRESKURATU ETA APROBETXATZEKO IKASTAROAK BULTZATU | Favorecer e impulsar, en colaboración con entidades que trabajan en este ámbito -como puede ser el caso de Emaús-, el desarrollo permanente de cursos y talleres de transformación y aprovechamiento de muebles y reparación de Aparatos Eléctricos y Electrónicos abiertos a la ciudadanía de la comarca. | 4 |
| 20 | 12 | LANBIDE HEZIKETAKO ETA UNIBERTSITATEKO IKASLEEK PROIEKTU BEERITZAILEAK DISEINATU ETA GARATU DEZATEN DEBAGIENEKO ESKUALDE MAILAKO LANKIDETZA EKIMENA | Gazteengan ekintzailetasunerako grina sustatzea eta gizarte aktiboagoa bultzatzea nahi da. Era berean, enpresa eta enplegu berriak sortzeko aukerak ematea bilatzen da. Helburu horiek lortzeko zenbait ekintza: · Proiektu berritzaileak garatzeko ideiak lantzeko jardunaldiak, ikastaroak, saioak e.a./ · Enpresen edo pertsonen eguneroko arazoei konponbidea bilatzeko soluzioen lanketa trinkoa / · Proposamen eta proiektu berritzaileen azalpen eta erakusketa publikoak / · “Startup” ak aztertzeko eta inplementatzeko lehiaketak | 4 |
| 21 | 14 | EKINTZAILEENTZAT GUNE MULTIFUNTZIONALA | Gune fisiko bat ekintzaileen eskutan jartzea (alokairu merke baten truke): Ideiak aztertzeko lekua (espazio fisikoa, ordenagailua, liburutegia,….) / Bilera gelak (bezero-hornitzaileekin batzeko)/ Aretoak (jarduerarekin lotutako ekimenak egiteko): ikastaroak, hitzaldiak, jardunaldiak,... / Cooworking / Asanbladak/... | 4 |
| 22 | 15 | JARDUERA EKONOMIKOAREN SUSTAPENA 50 URTETIK GORAKO LIZENTZIADUN ETA GAZTE LANGABETUEN ELKARLANEAN | Proposatzen dugu lizentziadunak, eta lan esperientzia handiko langabetuekin enpresa berriak sortzeko tailerrak garatzea. Beti ere erakunde publikoen, Debagoieneko unibertsitateen, berrikuntza guneen eta Iraganeko Oinatzak bezalako elkarteen lankidetzarekin.<br>Horrez gain. enpresak sortzen laguntzea, ekintzailetasuna lantzea | 4 |

berdinatsuna

landa garapena

| | Zbkia | Bilerarako TITULUA | PROPOSAMENA | GUZTIRA |
|---|---|---|---|---|
| **23** | 34 | E3! PROIEKTUA; LANGABETUAK LANEAN SARTZEKO FORMULA GISA ETA ENPRESEK DITUZTEN PROIEKTUAK ETA JARDUERA BERRIAK SORTZEKO | Debagoienean gauzatu gabeko negozio aukera ugari egotearen eta ahalmen ekintzailea duten langabe ugari egotearen paradoxari probetxua ateratzeko helburuarekin, Etorkizuna Elkarrekin Eraikiz (E3!) izeneko ekimen bat antolatzea proposatzen dugu.<br>Etorkizuna Elkarrekin Eraikiz! (E3!) ekimenak prestakuntza-ikaskuntza prozesu egituratu bat emango luke, baita belaunaldien arteko ezagutzaren transferentzia ere, ekintzailetzaren sustapenaren testuinguruan aplikatuta, langabezian dauden pertsonentzat lanean sartzeko eta garapen profesionalerako formula gisa.<br>Horrenbestez, E3! Proiektu egituratu bat dauka?: Merkatuaren eta egingarritasun teknikoaren ebaluaziora bideratua, Enpresek aurkeztutako proiektuekin osatuta, enpresa jarduera berriak sortzera bideratuta, Ekintzailetza proiektuen bidez gauzatu ahal izan behar direnak, Langabezian dauden eta kualifikazio tekniko handia duten gaztez osatutako diziplina askoko taldeak izanik protagonistak eta Erronka teknologiko bati edo merkatu zehatz bati erantzuteko konpetentzia bereziak emateko gai direnak.<br>E3! Proiektuaren birtualtasuna da bateratu egingo direla, prozesu sinergiko eta egituratu baten esparruan, langabeen jarduera ekintzaileak (gazte eta emakumeak) eta Debagoieneko enpresen ekintzailetza prozesuak.<br>Negozio aukera berrien prospekziorako lehentasunezko bektoreek eremu teknologiko eta merkatuko eremu hauek hartzen dituzten kontuan: Osasuna eta Zahartzaroa (Gailu medikoak, osasun zerbitzuak eta zerbitzu sozio-asistentzialak), Energiaren sorrera (Garraioa eta banaketa eraginkorra.  Teknologia garbiak.), Uraren tratamendua eta deskutsatzea,  Baliabide eta lehengaien erabilera eraginkorra eta Klima aldaketa eta iraunkortasuna. Urbanizazioa eta mugikortasuna.<br>E3! Proiektua ekintzailetzarekin konprometituta dauden Debagoieneko langabeek eta enpresek parte hartzera zabalduta egongo litzateke. Beraz?:<br>Pertsonek E3! Proiektuetan sustatzaile moduan parte hartu ahal izango dute, gaitasun bereziak eskainiz, erronka teknologiko edo merkatuaren erronka jakin bati erantzuteko. E3! Proiektuan parte hartzean pertsonek hartzen dituzten konpromisoak honako hauek dira: E3! Proiektuari erabateko dedikazioa eskaintzea, Ekintzailetzari buruzko formazio saioetara joatea eta saio | 4 |
| **24** | 49 | ETORKINEN EGOERAREN AZTERKETA | Etorkinen arazo eta beharren azterketa egin | 4 |